



Memoria

2019

**Kabia foru organismo autonomoko Gobernu Batzordeak
onartua**

Donostia, 2020ko ekainak 10

AURKIBIDEA

1. ZERBITZUARI BURUZKO DATUAK	1
1.1. ZERBITZUAK	1
1.2. ERABILTZAILEAK	1
a) Erabiltzaileen profila.....	1
b) Errotazioa.....	4
c) Okupazioa.....	5
1.3. LANGILEAK ETA ZERBITZU ENPRESAK	6
a) Plantillako langileak.....	6
b) Zerbitzu enpresak.....	6
2. BATERATZE PROZESUA ETA EGOITZA BERRIEN INTEGRAZIOA	7
3. KUDEAKETA PLANA.....	8
4. AURREKONTUAREN KUDEAKETA.....	12
4.1. GASTUAK.....	12
4.2. DIRU SARRERAK.....	14

1. ZERBITZUARI BURUZKO DATUAK

2019an Kabian lau egoitza berri sartu ziren; urtarrilaren 1ean Errenteria eta Oñatikoak, eta apirilaren 1ean Tolosa eta Arrasatekoak. Horren ondorioz, 2019an Kabiak hamabi egoitza kudeatu ditu ondorengo ezaugarriekin.

1.1. ZERBITZUAK

2019an Kabiak ondorengo zerbitzuak kudeatu ditu:

EGOITZA	OINARRIZKO PLAZAK	UPSI PLAZAK	EGOITZAKO PLAZAK GUZTIRA	EGUNEKO ZENTROA PLAZAK	TUTORETZAPEKO APARTAMENTUAK PLAZAK
ANDOAIN	95	-	95	-	-
ARRASATE	104	-	104	-	-
AZKOITIA	54	14	68	20	12
BERGARA	81	18	99	-	-
ELGOIBAR	48	-	48	-	-
ERRENERIA	127	15	142	-	-
LASARTE-ORIA	42	15	57	25	-
OÑATI	68	15	83	-	-
ORDIZIA	72	-	72	-	-
TOLOSA	147	-	147	-	-
VILLABONA	39	-	39	4	-
ZUMAIA	52	-	52	-	-
GUZTIRA	929	77	1006	49	12

1.2. ERABILTZAILEAK

Kabiako erabiltzaileen profila honakoa da: ia 88 urte dituen emakumea da, mendekotasun handia duena.

a) Erabiltzaileen profila

Kabiak artatzen dituen pertsonen artean %70 emakumeak dira. Erabiltzaileen batz besteko adinari dagokionez, emakumeak gizonak baino zaharragoak direla nabarmentzen da.

Egoitza Zerbitzua	Batezbestekoa / Adina (2019/12/31)		
	E	G	Guztira
Andoain	88,1	85,5	87,5
Aldi baterako egonaldiak	87,2		87,2
Egoitza	88,1	85,5	87,5
Arrasate	89,5	84,2	87,5
Egoitza	89,5	84,2	87,5
Azkoitia	85,4	81,4	84,0
Egoitza	85,9	82,0	84,5
Eguneko zentroa	83,8	80,4	82,5
UPSI	85,7	80,8	84,2
Bergara	87,5	85,7	87,0
Egoitza	87,4	85,5	86,9
UPSI	88,0	86,2	87,4
Elgoibar	87,4	82,1	85,6
Egoitza	87,4	82,1	85,6
Errenteria	88,0	83,8	86,8
Egoitza	87,9	84,9	87,1
UPSI	88,3	78,4	85,0
Lasarte-Oria	86,1	83,3	85,0
Egoitza	85,5	83,1	84,4
Eguneko zentroa	86,5	83,8	85,3
UPSI	86,7	82,3	85,5
Oñati	87,6	83,1	86,5
Egoitza	88,1	83,3	87,1
Eguneko zentroa	86,8	82,1	85,5
UPSI	87,4	84,7	86,4
Ordizia	89,6	82,7	87,8
Egoitza	89,6	82,7	87,8
Tolosa	88,2	81,8	86,5
Egoitza	88,2	81,8	86,5
Villabona	88,0	83,9	86,9
Egoitza	88,0	83,9	86,7
Eguneko zentroa	88,0		88,0
Zumaia	88,4	81,8	86,4
Egoitza	88,4	81,8	86,4
Guztira	87,8	83,3	86,5


(E) Emakumeak/ (G) Gizonak

Orotara Kabiako zerbitzuak jasotzen dituzten erabiltzaileen batez besteko adina azken urteetan antzekoa dela ikus daiteke. Kasu guztietan emakumeak dira zaharragoak.

BATEZ BESTEKO ADINA					
2017		2018		2019	
E	G	E	G	E	G
86	82	87	83	87	83

(E) Emakumeak/ (G) Gizonak

Menpekotasun graduaren arabera, mendekotasun larria eta handia dutenen proportzioa handiagoa dela ikus daiteke. Autonomoen eta mendekotasun larria duten egoiliarren portzentajeek behera egin duten bitartean, mendekotasun handia duten egoiliarren ehunekoek 2017ko datuekiko 8 puntuko igoera izan du.



b) Errotazioa

Zerbitzu bakoitzean egon diren altak (sarrerak) eta bajak (irteerak) ondorengo taulan jasotzen dira:

	ALTA kopurua			BAJA kopurua		
	E	G	Guztira	E	G	Guztira
Andoain	36	10	46	34	7	41
Aldi baterako egonaldi	1		1	1		1
Egoitza	35	10	45	33	7	40
Arrasate	21	10	31	18	13	31
Egoitza	21	10	31	18	13	31
Azkoitia	24	11	35	25	17	42
Egoitza	14	4	18	13	5	18
Eguneko zentroa	3	4	7	7	6	13
UPSI	7	3	10	5	6	11
Bergara	23	9	32	19	8	27
Egoitza	18	6	24	15	5	20
UPSI	5	3	8	4	3	7
Elgoibar	8	3	11	9	2	11
Egoitza	8	3	11	9	2	11
Erresteria	34	14	48	34	15	49
Egoitza	27	9	36	26	11	37
UPSI	7	5	12	8	4	12
Lasarte-Oria	16	14	30	17	14	31
Egoitza	3	4	7	4	4	8
Eguneko zentroa	11	8	19	11	9	20
UPSI	2	2	4	2	1	3
Oñati	32	14	46	28	13	41
Egoitza	19	4	23	12	5	17
Eguneko zentroa	9	9	18	12	6	18
UPSI	4	1	5	4	2	6
Ordizia	18	5	23	20	8	28
Egoitza	18	5	23	20	8	28
Tolosa	22	10	32	24	12	36
Egoitza	22	10	32	24	12	36
Villabona	8	1	9	6	3	9
Egoitza	6	1	7	4	3	7
Eguneko zentroa	2		2	2		2
Zumaia	6	4	10	4	3	7
Egoitza	6	4	10	4	3	7
Guztira	248	105	353	238	115	353

(E) Emakumeak/ (G) Gizonak

Zerbitzua uztearen arrazoiak heriotza, beste zerbitzu edo egoitza batetara aldatzea edo borondatez zerbitzua uztea izan dira. Arrazoi guztien artean heriotza izaten da nagusitzen dena.

c) Okupazioa

Zentro bakoitzeko zerbitzuen okupazioa honakoa izan da:

EGOITZA/ZERBITZUA	%
Andoain	
Egoitza	98%
Arrasate	
Egoitza	98%
Azkoitia	
Eguneko zentroa	82%
Egoitza	99%
UPSI	97%
Bergara	
Egoitza	99%
UPSI	99%
Elgoibar	
Egoitza	100%
Errenteria	
Egoitza	99%
UPSI	98%
Lasarte	
Eguneko zentroa	97%
Egoitza	99%
UPSI	99%
Oñati	
Eguneko zentroa	99%
Egoitza	94%
UPSI	99%
Ordizia	
Egoitza	97%
Tolosa	
Egoitza	97%
Villabona	
Eguneko zentroa	99%
Egoitza	100%
Zumaia	
Egoitza	100%
Guztira	98%

Azkoitiako egoitzan udal eskumenekoak diren apartamentu tutelatuak kudeatzen dira. 12 plaza daude, 4 apartamentutan banatuak. Guztira, 5 eta 6 erabiltzaile egon dira 2019an.

1.3. LANGILEAK ETA ZERBITZU ENPRESAK

a) Plantillako langileak

Egoitza berriak sartzearekin, Kabiako plantillako langile kopurua nabarmenki handitu zen. Bestetik, Kabiako Zerbitzu Zentraletako egitura zabaldu da egoitzetako lanpostuekin funtzio aldaketa bidez:

Kabiako eta egoitzetako lanpostuen zerrendaren arabera, 2019 beteta zeuden lanpostuak honakoak dira:

Lan zentroak	Lanpostuak guztira
Zerbitzu zentralak (Donostia)	9
Andoain	14
Arrasate	19
Bergara	21
Errenteria	9
Oñati	6
Ordizia	16
Tolosa	38
Zumaia	3
Guztira	135

b) Zerbitzu enpresak

2019an lau egoitzetako zerbitzu kontratu osoak lizitatu eta formalizatu ziren, zehazki Azkoitia, Lasarte, Villabona eta Zumaiaiko egoitzei dagozkienak.

Horren ondorioz, Kabiako egoitzetan arlo asistentzialari dagokionez, honako zerbitzu enpresekin kontratuak daude:

- o Arrasateko egoitzan, Servicios Sociales Aita Mennik S.L.arlo asistentzialari dagokion hainbat zerbitzu ematen ditu.

- o Bergarako, Errenteriako eta Ordiziako egoitzetan, aldiz, Eulen Servicios Sociosanitarios S.A. enpresak bere zerbitzuak ematen ditu. Gainera, Bergaran Lahar Elkargoak eta Errenterian Sesosgi S.L.k kontratu zerbitzuak dituzte ere bai.
- o Elgoibar eta Azkoitiako egoitzetan, Biharko Gipuzkoa SL enpresa dago egoitzaren kudeaketan.
- o Lasarte-Oriako egoitzan, 2019ko urriaren 1etik aurrera Quavitae Servicios Asistenciales SAU enpresa dago egoitzaren kudeaketan.
- o Oñatiko egoitzan, Servicios Sociales Aita Menni enpresa dago egoitzaren kudeaketan.
- o Tolosako egoitzan, Zu eta Biok kooperatiba eta Sesosgi S.L. zerbitzu enpresak daude.
- o Villabonako egoitzan, 2019ko urriaren 1etik aurrera Arquisocial S.L.enpresak kudeatzen du.
- o Zumaiako egoitzan, 2019ko urriaren 1etik aurrera ZAINZEN S.A. enpresak kudeatzen du.

2. BATERATZE PROZESUA ETA EGOITZA BERRIEN INTEGRAZIOA

2019an Kabian beste lau egoitza berri integratzea aurreikusita zegoen: Arrasate, Errenteria, Oñati eta Tolosa. Hori dela eta, Gizarte Politikako Departamentuko eta Kabiako ordezkariak urte osoan zehar udaletako eta egoitzetako arduradun politiko eta teknikoekin harremanetan egon dira integrazio prozesu hori aurrera eraman ahal izateko, aurreko urteetan egindako lanari jarraipena emanez. Halaber, Kabiako komunikazio planaren eremuan, egoitzetako langile, erabiltzaile eta familiak eta zerbitzu enpresak eta bestelako hornitzaileekin harremanak izan dira integrazioa zela eta aurreikusten ziren aldaketen berri emateko eta zalantzak eta bestelako gaiak argitzeko.

Prozesu horren ondorioz, 2018ko abenduak 27an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak bi hitzarmen sinatu zituen Oñati eta Errenteriako udal egoitzak Kabiara integratu zitezela 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera; beste biak, 2019ko apirilak 1ean integratu dira. Guzti horrek, 2018ko azken hilabeteetan eta 2019ko hasierakoetan, Kabian antolaketan, kudeaketan eta lan kargan ondorio batzuk izan ditu; bereziki ezinbestez hasieratik egokitu eta bateratu beharreko arloei zegokienez, hala nola: langileen kudeaketa arloan, sistema informatikoetan, kontabilitatean, etab.

2019. urtean zehar bateratze prozesuarekin jarraitu da. Hasitako proiektuen artean Resiplus Korporatiboa aipatu behar da, erabiltzaileen kudeaketarako den aplikazioa zentralizatu eta bateratzeko garaian, asistentzia arloko prozedura komunak zehaztu eta adosteko oinarritzkoa izango baita. Zerbitzari zentralizatu batetara migratu dira 7 egoitzetako edukiak. 2020ean gainontzekoak migratzeko asmoa dagoelarik.

Hizkuntza berdintasunari dagokionez, abiako ordezkari bat Galesko Swansean izan da Combi proiektuari (Migratzaileek eta desabantaila egoeran dauden ikasleek testuinguru elebidunetan lan egiteko gaitasun komunikatiboak lantzea helburu duen Europar Batasunak finantzatutako proiektuari) buruz izandako jardunaldi batean.

Bestetik, zerbitzua ematen duten enpresetako langileen motibazioa handitze aldera, Kabia HABE eta Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritzako kideekin elkarlanean esperientzia pilotu bat gauzatu zen, euskarako ahozko gaitasunaren aitortzara bideratutakoa. Kabiako egoitzak diren edo izango direnetan, zerbitzu enpresetako langileentzat B2 ahozko maila aitortzeko proba bat bideratu zen. 138 pertsona aurkeztu ziren, eta horietatik %84ak gainditu zuen.

Ondorengo taulan, egoitzakako partehartzeari buruzko datuak ikus daitezke:

Enpresa/ lan zentroa (egoitza)	EZ GAI	GAI	Ez aurkeztua	GUZTIRA
AITA MENNI	7	46	14	67
Villabona		8	2	10
Arrasate	5	24	10	39
Oñati	2	14	2	18
BIHARKO		20		20
Azkoitia-Elgoibar		20		20
CLECE	9	9	3	21
Pasaia	2	3	1	6
Lasarte	7	6	2	15
EULEN	5	24	10	39
Andoain	2	10	1	13
Zumaia		4	2	6
Errenteria-Irun		2	7	9
Bergara	1	6		7
Ordizia	2	2		4
ZU ETA BIOD	1	17	1	19
Tolosa	1	17	1	19
GUZTIRA	22	116	28	166

3. KUDEAKETA PLANA

Aurreko ekitaldietako joera jarraituz, 2019an ere kudeaketa planaren jardura nagusienak egoitzak integratzeko urratsak ematera bideratu dira; beharrezko informazioa bilduz eta hainbat arlotako aplikazio, sistema eta prozesuak egokitu eta prestatuz integrazio hori ahalbidetze aldera. Sektoreko eragileekin komunikazio eta koordinazioa egitea oinarrizkoa izan da ere bai.

Kudeaketa planean guztira 41 proiektu eta ekintza aurreikusi ziren. Betetze mailari dagokionez, ondorengo taulan proiektu bakoitzaren egoera adierazten da:

Kudeaketa planeko ekintzen betetze maila ulertzeko, koloreek ondorengo esanahia dute:

■ Ez da egin ■ Hasi da, amaitu gabe ■ Egina

EKINTZA		Betetze maila
ERABILTZAILEAK		
Egoitzetako erabiltzaileen ordezkari bideak		
	Erabiltzaileen ordezkari aukera desberdinak definitu	■
Erabiltzaile eta familien partaidetza-guneak Kabiako eremuan		
	Egun dauden ereduak bildu, aztertu eta eredu eta prozedura bateratua adostu eta barne-araudian txertatu	■
Erabiltzaileen asebetetze galdetegi eredu bateratua adostu		
	Gizarte Politikako Departamentua diseinatzen duen asebetetze galdetegi bateratuaren diseinuan eta ezarpenean parte-hartu	■
	Erabiltzaileen asebetetze galdetegia eredu bateratua adostu Gizarte Politikako Departamentuarekin elkarlanean	■
Osakidetzarekin egoitzek sinatutako hitzarmenak aztertu eta Kabiako eredu definitu		
	Osakidetzarekin egoitzek sinatutako hitzarmenak aztertu eta Kabiako eredu definitu	■
Egoitzetako barne araudia adostu		
	Egoitzetako barne araudia eta kontratua adostu	■
PERTSONAK (LANGILEAK)		
Lan taldean eta lidergo ahalduntzean oinarritutako pertsonen kudeaketa eredu bultzatu GFArekin koordinatuta eta irizpideak partekatuz		
	Eredu definitzeko proiektua garatu	■
Langileen kosteak sostengarriak izatea		
	Langileen kudeaketa prozedurak zehazten jarraitu (fitxaje aplikazioa, intraneta, ...)	■
Langileen ordezkari: legearen arabera Kabiaren betebeharrak zehaztu eta irizpideak adostu		
	Langileen ordezkari: legearen arabera Kabiaren betebeharrak zehaztu eta irizpideak adostu	■
Langileen prestakuntza gauzatu erabiltzaileen beharrak kontutan edukita		
	Langileen prestakuntza gauzatu erabiltzaileen beharrak kontutan edukita	■
Zerbitzu zentraletako langile beharrak eta egitura definitu		
	Zerbitzu zentraletako egitura osatzen jarraitu	■
Kabian sartzen diren langileen integrazioa lortu ereduarekin bat eginez		

EKINTZA		Betetze maila
	Kabian sartzen diren langileen integrazioa lortu Ereduarekin bat eginez	
KUDEAKETA		
2019an Kabian sartuko diren egoitzen integrazio prozesuaren plana egin eta gauzatu		
	2019an Kabian sartuko diren egoitzen integrazio prozesuaren plana egin eta gauzatu	
Administrazio elektronikora egokitzeko plana		
	Aldundiarekin koordinatu Kabia administrazio elektronikora egokitzeko urratsak ematen jarraitzeko	
	Eusko Jaurlaritzako kontratatzaile profiler eta jakinarazpen elektronikora egokitzea	
Emaizetara zuzendutako kudeaketa egin		
	Aurrekontuaren jarraipen zorrotza egin	
Erregistroaren irizpideak adostu		
	Kabiakoa sarrera eta irteera erregistroaren erabilera eta erabiltzaileak definitu eta abian jarri	
Kabia eta diru-laguntzak		
	Diru-laguntzak eman ditzakeen ala ez aztertu, argitu eta prozedura zehaztu	
Kabia eta GFAREN arteko koordinazio eta elkarlana hobetu		
	GFA eta bere foru sektore publikoaren gobernantza eredia definitzen lagundu	
Kabiako egoitzen kudeaketa sistema komuna definitu eta inplantatu GFA eta Departamentuko Plan Estrategikoarekin lerrokatuta		
	Prozesu klabeak landu, adostu eta abian jarri	
	Instalakuntza eta arkitekturari buruzko datu eta dokumentazioa biltzen hasi	
Kontratazio deialdien urteko plana egin		
	2019ko Kontratazio deialdien urteko plana egin eta aurrera eraman, Kabian ez dauden egoitzekin elkarlanean	
	Kontratazio zentraletik esleipen prozesuaren jarraipena egin	
Kontratazio prozedurak egokitu		
	Kontratu txikien prozedura zehaztu, adostu eta abian jarri	
Kudeaketa hobetze aldera, Kabiako organoen eskumenen delegazioa zehaztu eta adostu		
	Kudeaketa hobetze aldera, Kabiako organoen eskumenen delegazioa zehaztu eta adostu	
IRAUNKORTASUNA ETA BERRIKUNTZA		
Egoiztetako prebentzio planak eta Kabiakoak bateratu		

EKINTZA		Betetze maila
	Kabiako prebentzio plana eta egoitzena bateratu	
	Autobabes planak egokitu	
Egoitzetan auditoria energetikoak egin		
	Egoitzetan auditorio energetikoak egin	
Erabiltzaileen kudeaketarako aplikazioa bateratu		
	Kabiako RESIPLUS korporatiboa diseinatu, irizpideak adostu eta Kabiako egoitzetan abian jarri	
	Resiplus korporatiboa ezartzeko beharrezko azpiegitura ezarri IZFErekin elkarlanean	
Kabiako egoitzen IKT sistema komuna definitu eta inplantatu		
	Egoitzetako IKT planak prestatu eta ezarri	
Egoitza bakoitzeko mantentze plana egin		
	Mantentze urteko plana egin eta garatu	
GIZARTEA		
Emakume eta gizonezkoen berdintasuna Kabian txertatu		
	Berdintasuna Kabiaren eremuan, kudeaketan eta lizitazioetan txertatu	
Hizkuntza berdintasuna Kabian txertatu		
	Irakatsi eta ikasteko metodologia berrien garapenean parte hartu	
	HABE eta GFA-Hizkuntza Berdintasunarekin elkarlanean esperientzia pilotu bat diseinatu eta garatu	
	VI Plangintzaldiko erabilera planera egokitzen hasi	
Kabiako informazio segurtasun sistema		
	Dokumentu formalizatuetakoinformazio klausulak egokitu	
Kabiako irudi korporatiboa bateratu		
	Kabiako irudi korporatiboa eta zerbitzu enpresak	
	Kabiako irudi korporatiboa dokumentu batean jaso eta zabaldu	
Komunikazio plana diseinatu eta garatu		
	Komunikazio plana diseinatu eta garatu	

4. AURREKONTUAREN KUDEAKETA

4.1. GASTUAK

Kabia foru organismo autonomoan, 2019. urtean zehar egindako gastuen banaketa beheko taulan ikus daiteke.

KAPITULUA	HASIERAKO AURR.	BEHIN BETIKO. AURR.	ONARTUTAKO OBLIGAZIOAK	
			€	%
1. Langileria gastuak	8.222.225,00	8.222.225,00	5.594.600,21	68,04
2. Ohiko gastuak	36.133.342,00	36.133.342,00	30.532.317,17	84,50
4. Transferentzia arruntak	96.210,00	96.210,00	96.210,00	0,00
6. Inbertsio errealak	1.155.000,00	1.155.000,00	609.150,76	52,74
Gastuak guztira	45.606.777,00	45.606.777,00	36.736.068,14	80,55

Aurrekontuaren likidazioari dagokionez, aurrekontuaren %80,55 likidatu da, aurreko urteetan baino proportzio handiagoa. Bigarren kapituluan izan da gastuaren proportziorik handiena, bereziki egoitzetako zerbitzu eta hornidura kontratuetako gastu finkoen ondorioz sortutakoa baita.

Seigarren kapituluan egindako gastua aurrekontuaren %52,74 izan da, proportzioan kapitulu guztien artetik txikiena. Inbertsioak ez egitearen arrazoia ez da izan beharrak ez egotea. Alderantziz, beharrak oso handiak dira, egoitzen egoera dela eta. Zailtasunik nagusiena honakoa da: inbertsio horiei aurre egiteko egin beharreko tramitazioa eta kontratazioa bideratzeko gaitasuna ez izatea Kabiako Zerbitzu Zentraletan dagoen lan karga dela eta.

Inbertsioak: ibilgetu materiala	Eraikuntzak	Makineria eta Tresneria	Altzariak	Informatikarako ekipamenduak	Guztira
Zerbitzu Zentralak	28.976,48	556,60	12.601,43	50.302,28	92.436,79
Andoain	12.842,15	50.367,21	12.523,50		75.732,86
Arrasate		26.900,27		3.315,40	30.215,67
Azkoitia		9.132,97	9.740,50		18.873,47
Bergara		17.403,17	5.554,05		22.957,22
Elgoibar		26.534,76	13.846,27		40.381,03
Errenteria		18.882,52			18.882,52
Oñati		3.731,43			3.731,43
Ordizia		67.506,14	17.755,54		85.261,68
Tolosa	8.831,79	18.422,97	1.239,70	5.304,64	33.799,10
Villabona	19.585,28	80.110,03	15.843,74		115.539,05
Guztira	72.020,45	326.732,68	88.502,08	58.922,32	547.408,10

Zerbitzu Zentralen kasuan, aipatu behar da 2019ko martxoan bulegoan Txararik Miramonera pasa zirela; horren ondorioz, hainbat lan burutu behar izan ziren bulegoak egokitzeko. Halaber, altzariak erosi behar izan dira ere bai.

Informatikarako ekipamenduari dagokionez (58.922,32 euro) Kabiako garapen informatikoko proiektuetara zuzendu da. Resiplus korporatibo proiekturako azpiegiturak garatzea bideratu da kopururik handiena. Beste kopuruak Arrasate eta Tolosako egokitzapen informatikoa egiteko erabili dira.

Andoingo egoitzaren kasuan, teilatuko itokinak konpontzea, igotzen diren oheen hornidura eta tinbreen laguntza sistema egokitzea izan dira inbertsiorik nagusienak.

Arrasateko, Elgoibarko eta Oñatiko egoitzetan, aldiz, suteen alarma zentralitak jartzeko lanak izan dira inbertsiorik nagusiak. Ordizian telefono zentralita baten inbertsioa izan da nagusiena.

Tolosaren kasuan, inbertsioen artean galdara gelako interkanbiadorea berria eta kamara frigorifikoaren motorra ordezkatzeko nabarmendu daitezke.

Egoitza guztietan hainbat makineria eta tresneria eta altzariak erosi dira urtean zehar: oheak, dutxarako aulkiak, atsedenerako besaulkiak, garabiak ...etb.

Azkenik, Villabonako egoitzan egin ziren inbertsiorik handienak 2019an. Alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua eta Kabiaren artean sinatutako lankidetzaren hitzarmena aipatu behar da, zeinaren xedea zen Villabonako adineko pertsonentzako egoitzaren energia sortzeko sistema birmoldatzeko obrak finantzatzea eta burutzea. Obra horretako lizitazioaren ordainketa kredituen soberakina Errenteriako adinekoen egoitzan energia sortzeko sistema birmoldatzeko lanak egitera bideratu zen, horretarako hasierako hitzarmenaren gehigarri bat sinatuz. Bestetik, Villabonako egoitzan teilatuan inpermeabilizazio lanak egin ziren ere bai.

4.2. DIRU SARRERAK

Kabiak, 2019. urtean izandako diru sarrerak beheko taulan jasotzen dira:

KAPITULUA	HASIERAKO AURR.	ONART. ESKUBID. GARBIAK	
		€	%
3. TASAK ETA BESTELAKOAK	13.704.980	13.969.847	101,9
4. TRANSF. ARRUNTAK	30.746.797	23.414.511	76,2
7. KAPITAL- TRANSFERENTZIAK	1.155.000	686.995	59,5
SARRERAK GUZTIRA	45.606.777	38.071.354	83,5